

**TRANSIZIO SOZIALAREN ETA 2030 AGENDAREN ERAGILE  
ANITZEKO FOROA / FORO MULTIAGENTE DE TRANSICIÓN  
SOCIAL Y AGENDA 2030**

2021-11-09 Vitoria-Gasteiz 09-11-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile anitzeko Foroaren Lehendakaritzaren lehen Adierazpena: **“2030 Agenda: premia eta aukera. Euskadiren konpromisoa”**.

Mende honen hasieratik, mundu osoak zalantzazko bidegurutze berri bati egin behar dio aurre. Euskadik ere bai.

Badakigu beharrezkoa dela trantsizio hirukoitza: Energetiko-klimatikoa; Teknologiko-digital; Soziala, sanitarioa eta demografikoa.

2020ko martxotik, pandemia bat jasaten ari gara; eragin sanitario, ekonomiko eta sozial larria globalizatu duena. Panorama honek eraldaketa sakon baten premiaren eta aukeraren aurrean jartzen gaitu.

2030 Agenda erantzun egokia da gure errealitate globala eta tokikoa eraldatzeko premiari eta aukerari erantzuteko. Hau Euskadiren; gure erakundeen, gizarte-eragileen eta gizarte osoaren; konpromisoa izan da eta da. Izan da eta da, 2017ko apirilaren 10ean, “Euskadi Basque Country 2030” lehen Agenda onartu genuelako. Harrezkero, ekimen ugari garatu ditugu.

Euskadi herrialde aitzindaria eta erreferentea da nazioartean Garapen Iraunkorrerako Helburuen konpromisoan eta garapenean. Horregatik, orain, Garapen Iraunkorrerako Helburuak bultzatzeko eta nazioarteko lidergoan jarraitzeko erabakia hartu dugu.

Agenda-k erakunde, eragile sozial eta ekonomiko guztiak eta gizarte osoa interpelatzen ditu. Agenda-k justiziaren, iraunkortasunaren, elkartasunaren eta nazioarteko lankidetzaren ikuspegi globala eta tokikoa eskatzen du.

Egindako ibilbidean oinarrituta, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile anitzeko Foroa eratzen dugu gaur. Eusko Jaurlaritzako sailek, Foru Aldundiek, EUDELeK, hiriburuetakoko Udalek, unibertsitateek, lankidetzaren publiko-pribatuaren ordezkari diren erakundeek eta gizarte zibil antolatuek parte hartzen dugu Foro honetan.

El Objetivo 17 de Desarrollo Sostenible demanda una metodología de alianza. La cooperación es indispensable. Esta reunión responde de forma expresa a su contenido. Podremos avanzar, mejorar y transformar la realidad, si somos capaces de colaborar y tejer alianzas.

Este Foro es un espacio de puesta en común, un ámbito de co-gobernanza entre instituciones y un marco de gobernanza colaborativa entre instituciones y agentes sociales. Representa la voluntad de compartir la Agenda 2030 como prioridad de País.

El primer objetivo es optimizar la coordinación y la concertación para construir una buena práctica de gobernanza de la Agenda 2030. Sobre esta base, asumimos cuatro retos:

-Primero: Aportar un valor añadido a los acuerdos internacionales en relación con el cambio climático. Este es el momento de intensificar la Acción y priorizar la Financiación. Contamos con el “Basque Green Deal”. Asumimos los acuerdos de la COP 26 de Glasgow como un mínimo sobre el que Euskadi se propone añadir una mayor ambición en los objetivos de descarbonización, eliminación de gases de efecto invernadero, neutralidad en carbono, energías renovables y biodiversidad.

-Segundo: Coordinar y promover una Agenda Urbana que permita impulsar una ciudad, una movilidad y un urbanismo de ecosistema verde e inclusivo.

-Tercero: Identificar, compartir e impulsar proyectos e iniciativas tecnológicas que den soluciones a los retos de una transición económico-digital inclusiva y basada en la equidad.

-Cuarto: Colaborar para defender la dignidad humana y los derechos humanos; acabar con la pobreza y la exclusión; garantizar la igualdad de género; y responder al reto demográfico.

2030 Agendak adostasun handia lortu du mundu osoan. Euskadin ere adostasun handia lortu du eta lortzen jarraitu behar du.

Garapen Iraunkorrerako Helburuek kontratu sozial berri baten edukia eskaintzen dute, ikuspegi globalarekin eta tokikoarekin, dimentsio politikoarekin eta pertsonalarekin, bokazio inklusiboarekin eta justizia sozialarekin.

Mundua krisian dago. Premia bat dugu eta aukera bat ere bai.

2030 Agenda Nazio Batuen akordio bat da, nazioarteko ahalegin onenak lerrokatzen dituena, mundu justuagoa, ekologikoagoa, oparoagoa eta baketsuagoa lortzen laguntzeko. Krisian dagoen mundu honek planteatzen digun premiari eta aukerari emandako erantzuna da.

Premia eta aukera planetarentzat eta pertsona bakoitzarentzat. 2030 Agenda Euskadiren konpromisoa da.

Eskerrik asko!